

## *Metodologia:*

### Moduluak

Ikastaroa *hamar modulu*etan banatuta dago, horietako bakoitzean ondorengo gaiak landuz:

1. *Ongi etorria - Bienvenida.*
2. *modulua: Egungo sistemaren azterketa kritikoa eta alternatiben bilaketa.*
3. *modulua: AmetsEkin: Amesten dugun gizarte eraldaketa gure taldeetan praktikan jarritz.*
4. *modulua: Tokiko komunitate inklusiboen, ekitatiboen eta eraldatzaileen esperientziak ezagutz eta partekatuz.*
5. *modulua: Herri Hezkuntza eta Sistematizazioa: Komunitate Inklusibo, Ekitatibo eta eraldatzaileako hezkuntza tresnak.*
6. *modulua: Funtsezko adierazleen identifikazioa Komunitate Inklusibo, Ekitatibo eta Eraldatzaileen eraikuntzan.*
7. *modulua: Tokiko esperientzien eta esperientzia globalen formazio bisitak*
8. *modulua: Formazio bisiten esperientzien eta bizipenen trukaketa.*
9. *modulua: Komunitate Inklusibo, Ekitatibo eta eraldatzaileen ibilbide- eta adierazleen-orriaren eraikitzea.*
10. *modulua: Komunitate Inklusibo, Ekitatibo eta Eraldatzaileen Eraikuntza parte-hartzaileako ibilbide-orria eta adierazleak Sortzeko elkar-trukaketa tailerra.*

Ikastaroan zehar hainbat jarduera partekatzeo aukera izango dugu: hausnarketak, esperientzia eta ikaskuntza kolektiboak eta indibidualak, herri hezkuntzan oinarritutako metodologia parte-hartzaileen bitartez.

## Formazioa

### *Online*

- **Iraupena:** 2 aste.
- **Materiala:** Modulu bakoitzak 10-15 orrialdeetako gai-zerrenda bat du.
- **Norbanako eta taldeko zereginak:** Burutu beharreko zereginak, ikastaroan parte hartzen duten pertsonen eta kolektiboen ikaskuntzetan eta esperientzietan oinarritutako hausnarketa jarduerak dira.
- **Foroak**
  - **Berriak:** Berrien foroan, ikastaroaren berrikuntzak eta oharrak partekatuko dira.
  - **Partekatutako hausnarketa eta ikaskuntza foroak;** modulu bakoitzean partekatutako hausnarketa eta ikaskuntza foro bat egongo, ikastaroan parte hartzen duten pertsonen bizipenak, esperientziak, ideiak, zalantzak eta hausnarketak partekatzeko espazioa bezala.

*Zeregin indibidual edo/eta kolektiboak ematea eta online foroak, ikastaroaren (online, aurrez aurrekoa eta formazio bidaiak) 10 moduluen lan tresnak izango dira*

### *Aurrez aurrekoa*

- **Iraupena:** 4 ordu
- **Lekua eta data:** Saio bakoitza non egingo den lekua eta data, ikastaroko partaideen prestasunaren baitan erabakiko da.
- **Partaidetza:** Aurrez aurreko moduluetan ikastaroko eta gonbidatutako tokiko entitateetako pertsonak parte hartuko dute, beraien esperientzia partekatzeko.

### *Formazio bidaiak*

- Ikastaroan zehar formazioko hiru bidai burutuko dira, komunitate inklusibo, ekitatibo eta eraldatzaile desberdinak ezagutzeko.
- **Iraupena:**
  - Formazio bidaia tokian: 2 egun
  - Formazio bidaia estatuan: 2-3 egun (aste bukaera)
  - Formazio bidaia Erdialdeko Amerika: 10-12 egun
- **Lekua eta data:** Abendua
- **Hautaketa:** Formazio bidaien hautaketa ikastaroa behin hasita dagoenean gauzatuko da.
- **Partaide kopurua:**
  - Formazio bidaia tokian: 7-8 pertsona
  - Formazio bidaia estatuan: 7-8 pertsona
  - Formazio bidaia Erdialdeko Amerika: 10 pertsona
- **Kostua:** Formazio bidaia Erdialdeko Amerikara burutuko duten pertsonak, mantenu gastuak ordaindu beharko dituzte, 250€.

### *Erritmoak:*

- Pertsona bakoitzaren lan-erritmoa errespetatuko da, hortaz, lanak entregatzeko epeak malguak izango dira.

